

ELKARRIZKETA




## IULEN MADARIAGA, HISTORIKO BATEN KEZKAK

- **EKONOMIA:** Finantzak gure esku balira. JULIAN ZAPIAIN.
- **AUTODETERMINAZIOA:** Estatuen gainetik herriak. MIKEL URKOLA.
- **TESTIGANTZA:** Irujotarrak, nazionalismoaren lekuko. IOSU CHUECA.

# ELKARRIZKETA

PATXI LARRION Argazkiak: LEIRE ARZUAGA

Julen Madariaga,  
EKIN taldeko  
partaidea izana.  
Hiru hamarkada  
luze igaro dira  
ETAren sorrera  
ekarri zuen talde  
hori agertu  
zenetik. Berak,  
beste batzuekin  
batera,  
marxismoaren  
ekarpeneei  
erakundearen  
ateak zabaldu



## IULEN MADARIAGA

omen zizkion.  
Algerian, lurralde  
honen  
askatasunaren  
lehenbiziko  
urratsak eta Txilen,  
Allenderen garaia,  
gertutik ezagutu  
ziten. Etorkizuna  
du kezka gure  
solaskideak.  
Orriotan, historiko  
baten  
kezkak.

## «Gerra psikologikoa aspaldidanik dugu galdua»

**larrun** Ongi baderitzozu, zenbait pasadizo historiko komentatzen has gaitezke. ETAren V. Biltzarrerako, Krutwig, Beltza, Etxabe, Edur eta zuk aurkeztutako manifestua erakundearen garai berri baten hasiera kontsideratua

izan da. Ekarpen marxistatzat har daiteken manifestu hura zure eskutik atera zela ere aipatu izan da? **IULEN MADARIAGA.** Halaxe da, baita besteei erakutsi ere. Baionan izan zen bilkura hura eta berrogeiren bat ginen. Testu hori irakurri eta

eztabaidatu egin zen: xehetasunez ez naiz oroitzen, baina testu horren inguruan zerbait bururatzeko konfiantzazko batzorde bat eratzea proposatu zen, eta hortik testu definitiboa atera.

**L.** Askotan aipatua izan da talde



« **G**arai hartan denok, edo gehienok, marxista hitza mundu ikuspuntu filosofiko baten gisa erabiltzen genuen»

hartakoak, hau da, Krutwig, Beltza, Etxabe, Edur eta zu, erakundearen barruan marxismoari atea ireki zeniotenak izan zinetela. Zenbaterainoko egia da hori?

**I.M.** Etxabe eta Edur kenduta, horiek ez baitziren horretan aritu, konfiantza eman ziguten eta aurrera. Beste hirurok bai, baina ez ginen bakarrak, Txabi Etxebarrieta eta beste batzuk ere (hala nola, M. Azurmendi, Eskubi, Bareño) V. Biltzarrean agertu ziren gai honen inguruan.

Orain arte V. Biltzarraren garrantzia azpimarratu izan da, baina adierazi nahi nuke guztiz logikoa den kontua, hau da, V. biltzar nagusi bat posible izan bazen IV. bati esker izan zela, eta hura III.ari esker, eta honela

atzerantz, gero eta gutxiago noski. Nik uste jadanik IV. Biltzar nagusirako zertxobait jorratu genuela marxismoaren afera.

Egungo perspektibaz, nahiz eta gauza asko aldatu orduz geroztik, V. Biltzarra erreferentzi puntu garrantzitsua da.

**L.** Marxismoak erakundearen barruan jokatu duen papera aztertzerakoan espagnolismo - abertzaletasuna kontuak azaltzen zaizkigu. Historian zehar jarrera abertzaleagoak hartu dituztenak, gehienetan, erreakzionariorzat hartuak izan dira. Zer iritzi duzu guzti horretaz?

**I.M.** V. Biltzarra bizi izan genuenok bagenuen kaskoan ondo sarturik eta markaturik han gertatu zena. Sasi VI. Biltzar Nagusiaren aurrean bagenekien zer nolako arriskua genuen, hots, berriz ere beste espagnolkeria batek gure mugimendua, gure erakundea izorra zezakeela. Horren beldur ginen, ez beharbada Patxi Iturriozek eta horiek lehenago egin zuten bezainbat.

Historian gauzak ez dira berdintsu errepikatzen, baina hala edo hola espagnolkeriari buruzko beste zeharkamenaren arriskua bazen, eta horren beldurrez ikusi genuen VI. dei-

tutako sasibilkura hori. Sasi bilkura diot beste VI. Biltzar bat izan baitzen geroago, egiazkoa. Alde batetik Bruselakoak ziren, Eskubi horien artean, eta beste aldetik «Celulas Rojas» horrietakoak, Pariseko taldea, alegia: Mikel Azurmendi, Matxain eta horiek.

**L.** Gaurko perspektibatik nola azal daiteke beldur hori, espainartasunari beldur hori izatea?

**I.M.** Ez bakarrik espainartasunari, frantziartasunari ere bai, gure problema garai hartan Hegoaldean zen, baina Euskal Herrian arriskua bi aldeetan egon da. Hain da hola ezen nere lehenengo lagunek, —ETAren beste sortzaileek, Txillardegia, Benito del Valle, Agirre, Imaz— V. Biltzarra pasatu eta manifestu famatu hura atera zuten, zera erranez: ETA, marxista-leninista bilakatzen zenez gero, erakundetik kanpo gelditzen zirela. Oso egoera latza izan zen hura.

Nahiz eta aipatutako manifestu horretan ez erran, gero, hitzez, egoera horren ardura gehien zeukana ni nintzela esan zidaten, «zeren eta gutariko bakarra izan baitzara holako jendeari atzeko atea zabaldu eta barruan sartzeko».

Euren izpirituan marxismoa kos-

**EKIN** sortu eta berehala normala denez, Euskal Herrian ez ginela bakarrak konturatu ginen. Gu baino gauza askoz ere garrantzitsuago eta zabalagorik bazela: EAJ zen hori.



mopolita izanik —eta kosmopolita zenez gero antiabertzale izanik—, berez, automatikoki, gure prozesu nazionalaren kontra omen zegoen. Hala balitz ni ere kontra nengoke, baina gure ustez ez zen horrela, alderantziz baina. Paper hori jokatu izanaz ez naiz damutzen.

**I.M.** Behin baino gehiagotan marxista definitu duzu zure burua; gaur egun ere mundutik barna predikamendu gutxi duten ideiekin bat egiten duzula esan izan duzu. Marxismoak ba al dauka zeresanik gaur egungo munduan?

**I.M.** Denok dakigu zer gertatu den azken urteotan: Erdi eta Ekialdeko Europak zorigaitzez porrot izugarria bizitu izan du. Beti marxistatzat eman

«**I**errien

Europa dela eta, ez dut uste nik EAjk benetan hori sentitzen duenik. Esan bai, baina baita bertzela jokatu ere»


dut ene burua, baina gauzak argi eta garbi ipiniz.

Garai hartan denok edo gehienok marxista hitza mundu ikuspuntu filosofiko baten gisa erabiltzen genuen, mundua ikusteko era bat edo mundu ikusmen bat adierazteko, kasurako materialismo dialektiko eta historikoaren alde ginela adierazteko, eta horren alde nintzen eta nago.

Beste aldetik, egun, Marxen obrari, munduaren eta gizartearen analisi-rako —zenbait gauza kenduz—, oraindik gauza dela deritzot.

**L.** Marxismoa ikuspuntu filosofiko gisa erabiltzeak zer ekarri du zure jardunean? Mundua eta gizartearen analisisirako baliagarria izan zaizula erran berri duzu?

**I.M.** Marxista kritikoa izan naiz beti, honetaz nola hartaz. Proletargoaren diktadura izan zen hasiera hasieratik



**Algeria 1965. urtean joan ginen, pentsatuz Alagerian une hartan independentzia berri berria estreinatua zutenez gero, gure egoera beste askok baino hobeki ulertuko zutela. Garai hartan zernahi zen Algerian.**


onartu ez nuena. Marrek bere obra erraldoian bost edo sei aldiz erabiltzen du kontzeptu hori.

Horretaz, ene ustez, Marrek erran nahi zuena zera da, historiaren azken aroan European menperatzaile izan den klasea burgesia izan dela, lehenago feudalismoa izan zen bezalaxe. Irudi bat erakutsi nahi izan zuen. Orain arte burgesiaren diktadura

ukan badugu hemendik aurrera, langileriak boterea hartuko duenean alegia, proletargoaren diktadura izanen da.

Nire ustez irudi horren bidez *shock* bat egin nahi izan zuen. Izatez, alabaina, langileria gizartearen gehien-go bada, orduan demokrazia berez ezartzen da. Eta demokrazia hori berez ezartzen bada, zertarako orduan

**Txileko kasuan ere, ordungo alderdi sozialista benetan iraultzailea zen, ez ordea Corvalan-en alderdi komunista, munduan maiz gertatu den legez.**



«diktadura» ezarri? Ez du zentzurik. Horregatik ez nuen sekula terminologia hori onartu. Gainera psikologiaren aldetik hitza zeharo desegokia da.

Sekulan ontzat eman ez dudan bigarren kontua klaserik gabeko irudia, *panacea* da, iraultza garailea gertatuz geroz, hots, langileriak boterea hartuko duen egunetik aurrera gizartea munduan zoriontsua izanen zela. Hori dialektika jokoaren kontra zuzen zuzen baitoa.

Bestalde, leninismoa dugu. Leninek, beste askok bezala, ekarpen handirik ere egin zuen. Baina bere abangoardia iraultzaile ospetsu hori ere ez nuen nehoiz onartu.

Egun batez, Miarritzen ginela, oroitzen naiz baten batek hori aipatu zuela: «Zeren eta guk, delako aurrealde iraultzaile hau», eta orduan neuk hau ihardespen gisa erran: «Baina nola guk, gutaz hori erran!». Hirugarren batek hori esaten badu, tira. Apaltasun gutxieneko hori galitzen badugu, akabo. Horrez gain, «zentralismo demokratikoa» ere ez dut ontzat ematen. Zeren eta horren estakuruz edozein astakeria egin baitaiteke.

**L. Beraz, ETAk marxista definitu**

**zuen bere burua. Beti ere, prozesu hori ez zen egun batetik bestera eman. Laburbilduta bada ere, nola eman zen marxismoranzko hurbilpena? Zerk edo nork bultzatu zuen jendea horrelako jarrera hartzera?**

**I.M.** Mikel Barandiaran Alkorta kenduz, Txillardegi izan zen gure artean marxismoarekiko lehen ardura

nerakook ez genuen hori ezagutzen. Horren froga EAJ alderdiarekin ukan genituen harremanak dira.

EKIN sortu eta berehala, normala denez, Euskal Herrian ez ginela bakarrak konturatu ginen. Gu baino gauza askoz ere garrantzitsuago eta zabalagorik bazela; EAJ zen hori, eta hasi ginen haiekin harremanetan.

«**G**aia, hemen eta orain, zorigaitzez oso korapilatsu dago. HB alde batetik, ETA bestetik eta KAS beste aldetik. Hiru alderdi joko baten barnean, zeina besteen gainera ezarri nahian»

eduki zuena. Mikel Barandiaran badakigu nor den. Lemoizko zentral nuklearraren burua izatera heldu zena, eta gurekin batera ETAREN sortzailetarikoa. EKIN taldea ETA bilakatu zelarik han zen bera ere.

Lehen makilkada 60ko martxoan hartu genueneko, Mikel izan zen marxismoari buruz lehenengo arduraren erakutsi zuena. Garai hartan gai-

Harreman horiek oso latzak izan ziren hasiera hasieratik, gauzak ozpintzen hasi zirelarik, Ajuriagerrak, behin, bota zuen —erdaraz, zorigaitzez beti erdaraz ari baitzen— «*y entre ellos hay un comunista*». «Komunista» hori Barandiaran Alkorta zen, hain zuzen. Barandiaranen ondoren marxismoaren bidean abiatu zen bigarrena Txillardegi izan zen. Geroxeago

hasi ginen besteok gai horretaz irakurtzen eta arduratzen.

60ko hamarkadaren hasierak Iparraldean harrapatu gintuen eta hortik Bruselara eraman. Gure ideia Algeriara joatea zen. Txillardeggi Bruselan geratu zen. Gu —Eneko Irigarai eta biok—, aldiz, Algeriara joan ginen pentsatuz Algerian une hartan independentzia berri berria estreinatua zutenez geroz, gure egoera beste askok baino hobeki ulertuko zutela. Guzti hori 1965-66 urteetan gertatu zen. Garai hartan marxismoaren pentsamoldea sakonduz joan nintzen, hangoa ikusiz eta hango jendearekin mintzatuz.

Mementu hartan Algeriako egoera izugarria zen: Afrika, Asia, Latimerika eta Europako jenderik bazen hor. Izatez eta praktikaz munduko mugimendu iraultzaile guztiek bazuten ordezkari bat Algerian. Itzela zen hura, Afrikako mugimendu guztiak ezagutu genituen, baita vietnamdar, txinatar, sobietarrak, Yugooslavia ohikoak, Ekialdeko alemanak eta beste guztiak. Horrek denak biziki lagundu ninduen; guzti horri esker, bizipen horiei esker, nere aurrerabidea edo prozesua askoz fi-

teago joan zen, irakurriz, komentatuz, ikasiz. Garai hartan zernahi zen Algerian.

Orduan, ene ustez, marxismoarentzako aurrerabide honetan Txillardeggi gainditu nuen, aurrera hartu nion, eta, ondorioz, bera atzean gelditu. Hau zirrara bat baizik ezta. Gero, ezaguna denez, 1977an HB hasten delarik, Txillardeggi honen joko politikoan sartu zen eta sozialismoaren

« **G**erra militarra ere galtzen ari gara. Hau larri larria da. Nik galdutzat ematen dut»

lehen iturrietara berriz hurbildu.

**L. Arestian aipatu duzun bezala, 60ko hamarkadaren erdialdean Algeriara joan zineten, eta hor zenbait irakaspen eta harreman erdietsi ere. Esperientzia horren balantzea egi-**

**terakoan zer nabarmenduko zenuke?**

**I.M.** Algerian hemezortzi hilabete eman nituen, eta denbora tarte hori aski izan zitzaidan zera ikusteko: zorigaitzez algeriarren aldetik ez genuela deus aterakuko.

**L. Beraz, Algerian eramandako estrategia ez zen baliagarria Euskal Herrirako?**

**I.M.** Dagoeneko historia denez geroz, erran daiteke. Hiru motatako laguntza nahi genuen: entrenamendurik, materialik lortzea, eta Algerian iriati bat ipintzea, gure pentsamendua, gure asmoa, gure mezua, gure borroka, Euskal Herrian barna hedatzekotz. Hori dena lortu ez genuenez ospa egin nuen handik, denbora galtzen ari ginelakoan. Irigarai bera, bertan geratu zen.

Bestaldetik, gure jardunean, zaila zen arrunt Algerian sartu eta Algeriatik atera, haien burokrazia izugarria zen, Frantziako inperialismoak sartutako burokrazia izugarri hori. Jakina denez, Europako burokrazirik handiena frantsesa da, nahiz eta azken urtetan kontu hori zertxobait aldatu den. Frantziako Estatuak izpiritu bera sartu zuen bere kolonietan.



**Une historiko batean militar jarduera ekintza nagusia izanik, gai gara ulertzeko erresistentzia guztiaren burua militarra izatea; baina hori behin behineko onartzen dugu, ez behin-betiko.**



«**I** asiera batean kritika egitea oso gogorra zen, eta hara non Antxon berak, bere izkribu famatu hartan zera dio, garaia dela buru zibiko-politikoak aitzindaritzea hartzeko»

Azken hau garrantzitsua bazen ere, arestian aipatutako hiru gauzak ez lortzeak bultzatu ninduen alde egitera.

**L. Algeriar herriak ezagutu zuen garapen politikoaz zer iritzia duzu? Zertan gelditu zen hori?**

**I.M.** Algeriar esperientzia osoa —na-



Prozesu honetan, bata handituz joan da (HB) eta bestea ttipituz (ETA), eta alta, guztia kudeatzeko aurrerabidea ETak zuen eta ez HBk.

zionala eta soziala— ene irudiko, trunkatua izan zen. Herri askatasuna lortzea, —independentzia alegia— ez zen gutxi izan, aitzitik, itzela izan zen.

Baina, zorigaitzez, prozesu zoragarri hori ez zen aurrera eramana izan, oldar hori ez zen profitatu, eta egundoko burokrazia hasi zen. Aurrerabide eder hura mementu batean moztua izan zen. Sozialismo hitza egunoro erabiltzen zen baina edukirik gabe.

**L. 1972. urtean Txilera joan zinen...**

**I.M.** Ez nintzen joan, igorri ninduten.

**L.** Antza denez, Algeriakoa ez bezalako esperientzia izandu zen hori, Allende agintera iritsi berria zen garaiko Txile ezagutzea egokitu zitzaizun.

**I.M.** Zazpi hilabete eman nuen han. Gogoratu behar da Baionan harrapatu nindutela 1971an; katedralean ginen bildurik. Hura izan zen lehen aldiz Frantzia inperioko txakurrak katedralean indarrez sartu zirela, barnean ke granadak iaurtiki zutelarik.

Zera esan ziguten: «nahi dugun bakarra Madariaga harrapatzea da». Hori ikusiz nere burua entregatu nuen, ene greba-kideak ito etzitezten. Neu irten eta besteak barnean geratu ziren entzerraturik.

Baionako presondegira eraman ninduten. Aldez aurretik esana genuen harrapatu eta sakabanatuz gero, zein bere presondegian gose greban jarraituko zuela. Halaxe egin nuen.

Egun batez, supituki, goizeko bostetan, gaisorga-militar batez Baionatik Frenesera —lehen aldikotz— eraman ninduten eta han gose greban jarraitu ere. Maurice Abeberrik, nere abokatua, gose greba bukatua zela erran arte ez nion utzi.

Otsailan, egun batez, arras goiz Orly-ra eraman ninduten hegazkinean sartu eta Txilera igorri. Hegazkinean nintzelarik ez nekien nora nihoan, baina orduantxe konturatu nintzen «Txileko paperak ditudanez gero harata nihoa», eta halaxe izan zen.

Bazen orduan Txilen holako herri-sukar bat, —zentzu onean diot—, nolabaiteko irekitasun bat. Aldi berean Txileko gizartea arrunt erdibi-

turik zen, alde batetik aberatsak eskuindarrak eta, beste aldetik, herri zapaldua, sozialismoa.

Euskaldunentzat triste zen: han zen euskal koloniak eskubiarekin bat egin zuen. Batzuek beharbada Euskal Herrian egon zireno gure aldera ziren; baina hara heldu, status ekonomikoa aldatu dirua eginik, baita heuren giroko eraginez ere, bai eskubiarekin lerratu ziren. Han nere senideren batekin egondu nintzen, semetzat hartu ninduten ondorio guztiekin, baina politikaz ez genuen eztabaidatzen ahal.

Euskal Herritik at nire bigarren aberria Txile dut. Bederatzi urte egin nuen han —bost urtetatik hamalau urte bitarte—, gure aita zenak 37-ko gerra galduaz, anka egin zuenean hemendik bizia salbatzeko.


Mementu hartan jadanik 1972an eskuindarrek saio bat egin zuten Allenderen aurka, «el tancazo» deitu zutena, (tankez egin zutelako), eta herriak bere burua defendatzeko armak eskatu zizkion Allenderi, eta honek ez zien tutik eman.

Nik hori gaizki bizitu nuen. Allende izan zen sozial aldetik guztiz idealista, eta lar zintzoa, lar leiala, eta bide batez lar legalista. Armarik emanez gero eztut uste deskontrolik ukanen zuenik. Egoera gaiztotuz zihoan, Noski badela arriskurik, baina nik uste arrisku hori, —eta beste batzuk egonik ere—, une helduta hartu behar dela.

Hartan ere, ordungo sozialista alderdia benetan iraultzaile zen, ez ordea Corvalan-en komunista alderdia, munduan maiz gertatu den legez.

**L. Ezker abertzalea, hirugarren munduan eman diren askapen prozesuei begira egondu da hainbat urtez, azken urteotan berriz Europak sekulako garrantzia hartu du, herrien Europa errebindikatzen da, itxuraz EAJren eskakizun bera da hori.**

**I.M.** Ez dut uste nik EAJk benetan



**Industri eraispena azken urte hauetako kontua da, ez soilik oraindikoa. Alta, gure zinezko zinkurinak, protestak, iaz baino ez dira hasi, hau da, beranduegi.**

hori sentitzen duenik. Esan bai, baina bertzela jokatu ere.

**L.** **Beti ere, aldaketa egon ala ez, Europa aintzat hartzen da, edo hobe esanda lehen ez zuen garrantzia ematen zaio.**

**I.M.** Ez Europaren aferan soilik baikizik eta beste zenbait alorretan ere. Gauzek argi eta garbi eta gero eta argiagoa aipatu eta erran behar ditugu.

«**I** auteskun-  
dez hauteskunde behera  
goazela oharzen gara.  
Horra hor ekidiezinezko  
errealitate mingotsa»

Europaren kasuaz, (beste arloetan bezala, hala nola borroka armatuaz, alde ala kontra izan, funtsezko gaiak baitira gure herrirako).

Nere zirrara zera da behin eta berriz oso atzeraturik gelditu garela zorigaitzez, eta ez gara behar den unean prest egoteko gai izan, edo

beharbada —aunitzetan gure kon-  
dairan zehar gertatu zaigun bezala—  
trena galdu dugula. Espero dut gure  
herria, gure herriaren funtsak, horren  
aurrean erreakzio bat edo beste uka-  
nen duela, —ez dakit noiz— bainan  
ukanen duela.

**L.** **Estrategiarekiko hainbat kritika egin dituzu.**


**I.M.** Gaur egungo egoerari dagokio-  
nez, ETAK, nahiz Madriletik nahiz  
Parisetik behin eta berriz alimalezko  
makilkadak jaso ditu. Gure artean  
denok nahi dugu negoziazioa, baina  
zein baldintzatan? Ene pentsamoldea  
honetaz ezaguna da aspalditik.  
Gauzak gertatzen diren neurrian  
gure ikusmoldea apurka apurka  
huntan edo hartaz aldatuz doa baina  
funtsean berbera da.

Guk EKIN lehenik eta ETA gero-  
go, sortu genituelarik, beti pentsatu  
genuen erakundearen burua beti zi-  
biko-politiko izan behar zela, eta ho-  
rren ondoan, —eta ondotik soilik—  
sortarazi genituen beso ekonomikoa,  
beso militarra...

Burua buru da eta besoa beso. Bai-  
na mili—polimili zatiketa gertatu ze-  
nean, (nire ustez ezinbertzean) ETA  
militarrari egokitu zitzaion ez soilik  
estrategia militarrean ari izatea, bai-



Ez beldur izan  
egiari. Egia  
iraultzailea  
omen da. Era  
horretan  
zertan  
gelditzen  
gara?  
Iraultzaile da  
komeni  
zaigunean,  
eta komeni ez  
zaigunean ez,  
eta ixildu egin  
behar.



zik eta politikan ere eskusartzea. Beraz, nahiz eta mili izena edo abjetiboa ukan, ihardun politikotan ere ari zen.

Har dezagun alemanen menpeko Europa, azken munduko gerrari buruz. Gugandik adibiderik hurbilena Frantziakoa da noski, bere erresistentzia.

Une historiko batean militar iharduera ekintza nagusia izanik, (beste herri baten armada hor dagoelako herria okupatuz), bai gara gai ulertertzeko erresistentzia guztiaren burua militarrek izatea; baina hori behin behineko onartzen dugu ez behin betikotz, hots, egun batez botere politikoa, indar zibiko-politiko horri bihurtzeko asmotan edo esperantzaz.

Gaia, hemen eta orain, zorigaitzez oso korapilotsu dago. HB alde bategatik, ETA bestetik eta KAS beste aldetik. Hiru alderdi joko baten barnean, zeinek besteen gainetik ezarri nahiz. Eta horrez gain, beste mundu aber-

tzale: EA, EAJ, independenteak.

Analisi baten hala uler daiteke gaur egungo egoera. Eguneroko borrokan, ordea, ezin da hain errez bereiztu.

Baina argi dagoena da azken hamar urteotan indar militarrek jipoi galantak jasan dituela. Hau ulergarria da oso etsaiarentzat, —Parisekoentzat zein Madrilekoentzat— gure aldetik arrisku edo langer handiena militarra izanik, norantz zuzendu dituzte erasoaldiak? Militar indarrarantz, naski.

Ondorioz, indar militar horretatik buru eta gaitasuna zuen jende hobereña desagertu egin da hilik edo presondegietan, Cuban, Dominikar Errepublikan edo Parisen, berdin zait; hala edo hola suntsitu egin da, eta paraleloki zibiko-politiko den indarra, hau da kasurako HB, bizpauru kasu ezik. —hala nola Muguruza eta Brouard, eta aspaldian Gipuzkoan Alba—, bizpahiru kasu horiek

kenduz HBko jendeak gero eta gehiago ikasi izan dute, gero eta esperientzia gehiago lortu dute, gero eta gaitasun gehiago baitute eta, alta, prozesu guztia agintzen zuena ipotxa zen (ETA edo hortaz geratzen dena ttipia bait zen, edo baita) ez erraldoia.

Erran nahi baita, bata handituz joan da (HB) eta bestea ttipituz (ETA) eta, alta, aurrerabide guztia kudeatzeko ETAk zuen eta ez HBk.

Gauzak horrela guztiz kontra natura direla deritzot. Hasiara batean hori esatea oso gogorra zen, eta hara non Antxon berak, bere izkribu famatu hartan (zakurrek Parisen harrapatu zutena, Atutxak presondegi guztietan sakabanatuz), zera dio garai dela buru zibiko-politikoak aitzindarritza hartzeko.

Tenore honetan gure munduan izugarritzko desoreka ikusten dut. Autokritikarik ez dugu egiten, zera esanez: «ixil zaitezte zeren eta etsaiak hau eta beste jakinez gero, pentsa ezazue nolako profitasuna aterako luke eta aitzaki hortaz ari gara urteak eta urteak zezenari adarretatik heldu gabe. Eta horren aurauera, egoera gero eta korapilotsuago bilakatuz doha-kigu. Urte ugari pasatu dut barne-

« **G**erra psikologikoan, inizatiba taktikoa une batean menturaz gal dezakegu, baina inizatiba estrategikoa galtzen badugu, akabo»

« Zergatik ETAk orain egindako ekintzak duela zenbait urte askoz onartuagoak ziren? Eta orain gero eta gutxiago? Gure ingurunean bertan »

kritika egiten (kanpoko jendeak —etsaiak bereziki— jakinaren gainean egon etzedin). Hagitz alperrik. Jaramonik pitsik ez.

**L.** Ezker abertzalearen azken lau urteotako bilakaeraz zer esan daiteke. Inoiz esan izan duzu geldiune batean dagoela. Oso kritiko azaldu zara.

**I.M.** Kritikak ez dira azaldu, hau da, barruko kritikarik ez dute utzi azaltzen. Gerra psikologikoa aspaldidanik sugu galdua, txit aspaldidanik. Gauza zaharra da. Holako prozesu iraultzaile batetan zenbait gauza eskas egon daiteke, baina baldintza bi ez dira sekulan eskas izan behar; bertzela prozesu osoa pikutara bait dihoa.

Gerra psikologikoa da bata: inizatiba beti gure eskuetan ukan behar, inizatiba taktikoa une batetan, menturaz gal dezakegu, baina inizatiba estrategikoa galtzen badugu, akabo.

Bestea sosa, dirua da.

Gerra psikologikoa: herriari etengabeki informatuz kausa justuari buruz, publizitatea, militanteei formakuntza eskeini eta eman eta abar luze bat. Hain zuzen ere, ETAn aspaldidanik ez da horrelako formakuntzarik ematen, lehen garaian ez bezalaxe.

**L.** Zure hitzetatik uler al daiteke ez dela ideologikoki sakontzen?


**I.M.** Bai, eta gaitasun ezarengatik galdu dela hori, ez borondate txararengatik, militante arduradunak eroriz doaz, eta geratzen den jendea politikoki, ideologikoki... gero eta gaitasun gutxiagokoa da, orohar gaitasun intelektualen aldetik.

**L.** Zibiko-politiko buruaren lana bultzatu behar dela esan duzu, hor badago gaitasunik? Zerk zailtzen du ideologikoki sakontzea gaitasuna baldin badago?

**I.M.** Elkar nahasten diren bi arrazoiengatik. Alde batetik kasu askotan —gehienetan ez bada— ezer esateko ausardiarik, ausardia moralik ezta. Honekin loturik, mementu batean portaera bat, militante on bat goititzen hasten bada, orduan zuzendari-

tza hortaz konturatuz honekin kasu zeren eta gorago joanez gero agian ezin izanen dugu kontrola, nolabait abiadura hartzeari beldurra izatea.

Bi arrazoi horiez gain, gerla ekonomikoa ere galdu dugu, ondorioz hor ikus dezakegu nola ari den etsaia gure herria —eta azken finean gure ehun industrial eta finantzaileak— desmantelatzen. Desmantelaketa hau azken urte hauetako kontua da, ez soilik oraindikoa. Alta, gure zinez-




Ni Fresnesen, presondegian nintzenean, Cathala Azkoiti bisitatzeraz etortzen zen eta bisitatu bezain laster, han bertan, patioan, demokratikoki, informazioa argi eta garbi ematen zion Azkoitik, beti.

« **E**tsaiak gure kritiken berri baldin badu, hainbat okerrago; baina ezin da horrela ibili, beti haren beldur, gure egonezin eta kritiken lapikoa hertsiki estaliz»

ko zinkurinak, protestak, ihaz baino ez dira hasi, egia da gero eta gogorra-goak direla, baina gehienak aurten edo ihazkoak, hau da, beranduegi.

Gerra militarra ere galtzen ari gara.

Hau larri larria da. Nik galdutzat ematen dut. Honek ez du erran nahi, zera: deus ez baldin badugu, ez ekonomiarik, ez politikarik...ordua n amore eman behar dugunik. Noski



**Su eten bat ez da *la entrega de las armas*, ni honen kontra nago. Su eten bat dut adarrikatzen, baina armak atxikirik, etsaiak egiten duen bezalaxe, berdin berdin. Ez areago, ezta guttiago ere.**

ezetz. Lehen aldikotz ohartzen naiz etsaiak ez duela kapitulaziorik nahi. Gure indarrak erabat berriztu behar ditugu.

**L. Autodeterminazioaren inguruko proposamena egiten denean ez al da buru zibiko-politiko aitzindarritza hartzen duena?**

**I.M.** Autodeterminazioa baino, nik soberania nahiago dut erabili, zeren eta zorigaitzez mementu honetan autodeterminazioa praktikara eramaten baldin badugu, —egun batez erreferendun bat eginek hortaz— ez dakit irabaziko ote genukeen. Gipuzkoan dudarik ez da, Bizkaian hala hola ibiliko litzateke, eta Araban eta Nafarroan eta Iparraldean zer esanik ez, galdu.

Gai honetan mantso-mantso eta zuhurki jokatu behar dugu, erran nahi baita, benetan eta zinez delako autodeterminazio horren printzipioa praktikara eraman nahi baldin badugu, Frantziaren eta Espainiaren imperioen pean gutxienez bi mende menperaturik egon izanez, beharko genuke ez noski beste bi mende librok eta aske bizitzen, baina bai beste hogeit bat urte gure herriak duen toxikazioa, kultur-kutsadura eta alienazioa hori ezabatzekotz.

Azter dezagun zer gertatu den azken hauteskundeetan. gure industria oro desmantelatzen ari delarik ezker aldean sekulan ez dituzten botoak ukan dituzte bai PNVk bai PSOEek bai eta PP ere Bilbo eta Donostia bezalako hirietan.

Fenomeno horrek adierazten du zera, gure inguruko desengainatu asko besteetara pasatzen ari dela. Gipuzkoa eta Bizkaian, bereziki, —PNV, EA EUE eta HB zenbatuz— gehiengo suposatzen zuen orain dela gutxira arte. Hori ere galdua dugu.

Horren aurrean, nere idurikoz, nolabaiteko kolektibo berri bat eratu beharko genuke, zintzotasun, prestigio, sinesgarritasun handia duten jendeaz osaturik, egiaz abertzale direla erakutsi diguten ezagun diren jendearen artean, EAKoa izan, HBkoa izan, EAJkoa izan, berdin zaigu. Emakumezko eta gizonezko prestuez hornitutako zelabaiteko *areopagoa*. Ez dut beste aterabiderik ikusten,





Azken finean, gaur egun abertzaleen arteko muga ez da honezkero independentzia edo autodeterminazioa, baizik eta bakezaleak garen ala ez. Bakezaleak hemen, «biolentoak» hor, zerua eta infernua.

oraindik orain.

Honelako batzarre bereziak, kontseilu bezalako zerbaitetan arituko liteke. Gure herria oraintxe dagoen atekatik atera nahiz, behar litaikeen guztiakin mintzatuz: HB, ETA, EAJ, EA, Elkarri, Madril, Paris... Badut buruan jende frango baina mementuz, zuhurtziaz, ez dut deus gehiagorik aipatu nahi. Ideia bat besterik ez da eta aurrera segi baino lehen, jende askorekin kontsultatu egin behar da.

Alderdi politiko guztiek porrot egin dutela ohartzen naiz eta zerbait antolatuta eta ekin beharrean gagoz. Ezen, orain bizi dugun *dévacle* edo desastrea baino handiagorik ez baitakit posible ote den.

**L. Zenbaitzuen iritziz une hauetan ezin da barruko eztabaidaren dialektika bat eremu publikoetan eduki.**

**I.M.** Bai horixe? Zer bestenaz? Igurika egon gure ghettoa guztiz usteldu arte? Hamaika pusketan lehertu arte? Izan ere, gure barnean, gure mun-

duan, gauzak gero eta txarragoak bilakatzen ari dira. Guk ere gauza asko dakigu etsaiari buruz, errate baterako PSOE barruan gertatzen dena, eta noski hortaz ahalik gehien profitatuz.

Etsaiak gutaz hau edo bestea jakin dezakeela? Nik neuk ez dut hau edo hori espreski eginen harek jakin de-

**baino kalte egiten diola ulertu daiteke.**

**I.M.** Ikusmolde hori kontserbakor, atzerakoia iruditzen zait arrunt. Eta alde direnak, bildurti.


Hauteskundez hauteskunde behera goazela ohartzen gara. Horra hor ekidiezinezko errealitate mingoa

« Azken hilabete hauetan agertu diren adierazpen eta kronika gehienak —Azkoiti dela edo ez dela—, denak gezurra dirudi »

zan, baizik eta gure etxea behar den moduan garbitzeko eta aurrera bultzatzeko. Eta etsaia enteratzen bada hainbat txarrago; baina ezin da horrela ibili, beti haren beldur, gure egonezin eta kritiken lapikoa hertsiki estaliz.

**L. Zure hitzetatik, guzti hau HBri on**

tza. Batek edo bestek esan ohi du go-goan izan behar dugula nolako indarra duen heuren telebistak eta dituzten medioek. Baina guzti hori bage-nekien aspaldidanik! Eta kasu, hola da eta horrela izanen da etorkizunean ere, elementu horiekin kontatu behar ditugu (eta genituen). Sasi-argudio



**Sekulan sasibake bat egiten bada —etsaiaren «bakea» ezartzen baldin bada alegia—, zer gertatuko zaigu? Zortzi, hamar edo hamabost urteren buruan gatazka berriz sortuko dela, are bortitzagoa.**

horrek eztu balio.

Zergatik ETak orain egindako ekintzak duela zenbait urte askoz onartuagoak ziren? Eta orain gero eta gutxiago? Gure ingurunean ere, ez naiz ari PNV edo EAko munduaz, gure munduaz ari naiz. Donostiako azken manifestaldian egon nintzen ene lagunekin, eta zera komentatu: kasua egin behar duenak ez duela egiten, gero eta ghettoago bihurtzen ari garela, honek edo harek fede onez kritika egiten badu, berehalaxe holako epiteto bat jartzen ohi diote: «hau nekatua dago, edo traidorea da edo bere prakak jeitsi ditu» eta holako pi-

tokeriak. Horren inguruan gogoeta egin behar dugu denok.

Adibidez, manifestaldi bat dugu, guretzat oso garrantzitsua dena; norbaitek berrogeitazortzi ordu lehena-go hildako bat ezarri digu beso gainean, hirurogeitahemezortzi urtetako goardia zibil erretiratu bat, alegia. Hori zela eta zenbat jende ez zen manifestaldi horretara etorri? Hori dea guk nahi duguna? Hori dea herri honen zerbitzura egotea?

Manifestaldi hori politikoa zen, buru politiko batek antolatzen du hori. Zergatik, bada, komando militar batek egin behar du hori une horre-

komeni zaigunean, eta komeni ez zaigunean ez da iraultzailea, eta ixildu behar. Ni ez nago ados, beti konsekuente izaten saiatu naiz eta, zorigaitzez, hori dela eta, zartakoak ezkerretatik eta eskubialdetik jaso ditut. Aire freskoa sar dadila gure etxean, eta antolatzen baldin badugu HBko mahai nazional bat benetan zinezko mahia bat izan dadila.

Azkeneko *Urrats Berri*-n parte hartu nuen, eta ez nago batere ados gertatu zenarekin. Badakit lehengoarekin konparatzen baldin badugu, aurrerapen txiki bat izan zela, demokratikoago. Baina ezta aski, urrundik ere.

Ni Bilboko alderdi zaharrekoa naitenez gero hemengo alderdi zaharrekoekin biltzen nintzen eta bilkura

bidez, nik sistematikoki emakumezko guztiak hautatu nituen.

Bigarren zerrendan, Inaki Esnaola, Loren Arkotxa eta ni kenduz, gainetako guztiak —buruz ari naiz— ezetzagunak ziren. Orduan jendeak zer egin zuen? Fede onez, zerrenda ofizialari botoa eman. Eta eskrutinioa inork ez daki nola egin izan zen.

**L. Hainbat komunikabideen iritziz zaharra-berri operazio baten aurrean omen gaude.**

**I.M.** Azken hilabete hauetan agertu diren adierazpen eta kronika gehienak —Azkoiti dela edo eztela— dena gezurra dirudi.

Ni Fresnesen, presondegian nintzenean, Cathala Azkoiti bisitatzeratortzen zen eta bisitatu bezain lais-

« **E**lkarri, merezi duen esperientzia da. HB edo KASeko batzuk, ez denak, haren aurka ari ei dira. Zergatik? Konpetentzia, itzala egiten dien inor/ezer ikusten dute? Dirudienez, ez dute hori jasaten ahal»

guztietara joan ere. Kartzelatik atera berria nintzen, eta han aipatu nuen zenbait gauzak ixiltasun izugarria sortarazi zuen... bildurrez... hori tabua zela eta etziren ausartzen alde ala kontra azaltzea, gai horiek ez omen ziren aipatu behar.

Mahai Nazionalako partaideak aukeratzeko orduan, arduradun bategen heldu zaizkigun eta zerrenda bi aurkeztu. Batean, irteten zen mahai nazionalak aurkeztzen zituen izenek osatua; eta bestean oinarriko jendeak, berez eta «ofizialatik at», Hegoalde osoan gandi aurkeztutakoak. Ni ere zerrenda horretan nintzen, jakin gabe nortzuek proposaturik.

Hori ez bide da demokratikoa. Lehengo zerrendatokoak, hengoak, alderdi zaharreko jendeak Bilboko ziren hautagaiak ezagutzen zituen eta Bizkaiko batzuk ere bai. Baina zerrendako beste guztiak ez. Arrunt itsuka bozkatu genuen, adi-

ter, han bertan, patioan, demokratikoki, beti informazioa argi eta garbi ematen zigun Azkoitik.


Bolada honetan ETA nahiko ahuldurik dago. Nire idurik, guk euskaldunok indar armatu bat ukan behar dugu, etsaiak berak armada bat daukan bezala, Parisek zein Madril. Horrekin batera zera diot: sueten bat ez dela *la entrega de las armas*, ni honen kontra nago.

Sueten bat dut aldarrikatzen, baina armak atxikirik, gordez, badaezpada, eta indartuz, etsaiak egiten duen bezalaxe, berdin berdin. Ez areago, ez eta guttiago ere.

**L. Une honetan jira birako ari da negoziazioaren leloa, horretara iristeko zer da beharrezko?**

**I.M.** Ni *Elkarri*-ko militantea naiz, —«oinetako» horietako bat— eta alde hortatik ere bultzatzen ari naiz. Merezi duen esperientzia da. HB edo KASeko batzu, ez denak, haren aurka





**Etsaia ohartu bide da zera, bere armadak ez duela garaipen militar «oso» bat lortu ahal izanen. Aldi berean, ez du umiliaziorik sortarazi nahi. Uste hori nahiko berria da, duela hamar bat urte ez zen horrela.**

ari ei dira. Zergaitik? Egiaz eztaikit dena azaldu baitie. Kompetentzia, itzala egiten dien inor/ezer ikusten dutea? Nik eztut sekulan horrela jokatu nire bizitzan barna. Benetako abertzale eta zinezko iraultzaile erakusten baldin badituzte heuren burua, alajaina, zeharo pozten naiz! Beste bat datorrela gure itsasontzira, egun batez niri itzala ematekotan ere!

Agian ni baino hobeto dirateke. Baina, batzuk, dirudienez, ez dute hori soportatzen ahal.

**L. Arjeleko negoziazioa gai harturik hainbat liburu argitaratu dira, horien edukinetan sartu gabe, gaur egungo perspektibatik zer nolako analisisia egin daiteke? Baldintzak ez al ziren behar ziren bezain helduak?**  
**I.M.** Arjelen bai alderdi batekoak bai

bestekoak, —modu ezberdinetan noski—, zangoa sartu zutela iduritzen zait.

Alde batetik espainiarrek biziki gaizki jokatu zuten: fede txarrez, trikimailuz eta arinki. Ordezkariek, gutarrekin adostu zutena «A» etzela adostua izan erran zuten, eta «B» argitara eman. Nire idurikotz desberdintasun haindik etzen bi testuen artean.

Holako negoziazio batean ezin da ehunetatik ehun lortu. Alderdi bakoitzak amore emateko prest egon behar du. Hitz batek edo kakotx batek, esaldia edo artikulua horren funtsa goitik behera ez badu aldatzen ontzat hartu behar da. Guzti hori etsaiaren aldetik.

Gure aldetik, bistan da Europako gobernu bati, publikoki ezin zaiola erraten ahal: «berrogeitazortzi ordu ematen dizugu hau aldatzeko: ez baduzu hori egiten erretiratuko gara eta fronte guztiak irekiak izanen dira berriro». Inongo gobernuak, publikoki, ageriki ezin luke horrelako «ultimatum» bat onartu. Pribatuki balitz, tira, hori besterik da.

Arjeleko negoziazioan argi eta garbi ikusia zen gutarrek ez zutela horretarako behar zen gaitasuna. (ETAren zuzendariak, ez Arjelen bertan aritu ziren euskal ordezkariak).

**L. Gaur egungo egoeran, balizko negoziazio bat zerk zailtzen du?**

**I.M.** Gauza anitz aldatu egin da. Oraingo eskaerak bestelako kontuak dira; funtsa galduta gabe guztiz ezberdinak. Beste modu batera erranez, beste baldintzapean gagoz.

Oraingo egoera hain da zaila eta korapilotsua, hain da gaiztoa guretzat, non frogatzen baita fronte askotan, zorigailteaz, gatazka galduta goazela.

Esate baterako gerla, psikologiaren aldetik duela sei bat urte, zinezko eta sasi abertzaleen arteko muga, autodeterminazioa eta independentzian —alde ala kontra egotea— zetzan. Jendeak ez ditu autodeterminazioa, soberania eta independentziaren arteko desberdintasunak biziki ontsa bereizten.

Har dezagun, beraz, globalki guzti hori. Apurka eta emeki, etsaiaren ge-

rra psikologikaren poderioz, eta batez ere, gure ahulezia dela eta, dena nahastuz joan da, batak besteari lehenetsuna harrapatuz.

Gure gizartearen «bakea, bakea, bakea» leloa ezarri zaigu azken bolada honetan. Baina ez «gure» bakea, etsaiarena baino. Halatan non, azken finean, gaur egun muga ez baita honerako gero independentzia edo autodeterminazioa, baizik eta, bakezaleak garen ala ez. Bakezaleak hemen, «biolentoak» hor, zerua eta infernua. Orain, EAJko, EAKo jende askoren artean eta HBko basean ere, bakea bai ala ez, lelo hori dabilte, izugarria da. Gure bakea balitz, tira. Baina ez da hori, etsaiarena da.

Ondorioz, ETA eta HBrekin harremanetan hasteko eskatzen duten bakarra indarkeria uztea dela. (ETArena, ez Espainiarena noski). Zein da, ordea, guretzat, herri honetako konturik funtsezkoena, bakea? Bakea baldin bada, aipa edo zer erran behar dugu lehen karlistadari buruz, bigarren karlistadari buruz, 36-37 gerrari buruz? Bakea eta gerra izan zen guzti horietan. Ez duzue uste, funtsezkoena, gure etsaiekin harremanak betirako konpontzea dela? Etsaia gure lurretatik betikotz alde egitea?

Euskal Herrian gertatzen den guz-

« **A**lgereko negoziaketan argi eta garbi ikusia zen gutarrek ez zutela horretarako behar zen gaitasuna. (ETAren zuzendaritzak, ez Algeren bertan aritu ziren euskal ordezkariak)»

tiaren oinarria, iturburu (indarkeria barne) egun batez, duela bi mendu, etsaiak gure etxean sartu zirenean dago. Hori irauten dueno, gatazkak irauko du. Sekulan sasibake bat egiten bada, —etsaiaren «bakea» ezartzen baldin bada alegia— zer gertatuko zaigu? Zortzi, hamar edo hamabost urteren buruan gatazka berriz sortuko dela, are bortitzagoa.

Euskal Herriko arazoari, denon ar-



**Euskal Herrirako nolabaiteko behin-behineko Euskal Batzarre bat antolatuko garaia heldu bide da. Emakumezko eta gizonezko prestuez hornitutako zelanbaiteko «areopagoa» antolatu beharko genuke.**

tean, zinez aurre egin behar diogu.

Afera hori denon artean, euskotarren oro artean egin behar dugun kontua da. Bakea ala gerra, —noiz, norekin eta zelan—, baina «geuk» erabaki, euskaldunok, ez Parisen edo Madril. Oraindik gerratan beraien kontra dagoen EAJko abertzale askok (anitz guttiago EAn), tiroka ibili ziren 36-37an, eta guk ez dugu sekulan hori kritikatu, aitzitik. Zergatik, ordea, lehenengoa onartu eta

armadak ez duela garaipen militar «oso» bat lortu ahal izanen. Aldi berrean, ezta umilaziorik sortarazi nahi. Uste hori nahiko berria da, duela hamar bat urte ez zen horrela. Ezen, itxuraz, konturatu baita lehen karlistada jazo zela, gero bigarrena, ondoren hogeitamazazpiko gerra eta azkenik oraingoa.

Eiki etsaiak bere buruari esaten dio: oraingo honerik funtzesko erantzun, aterabide bat ematen ez badiot, hamar edo hamabost edo beharbada hogeitamar, —ez dakit zenbat— urteren buruan, beste ETA baino zerbait askoz ere txarragoa agertuko zait, eta orduan ezin izugarriago izanen da.

Beraz, saia gaitezen egiazko eta bertako irteeraren bat lortzen.

**L. Arestian, Euskal Herriko arazoari aterabideren bat emateko proposamenen bat egin duzu. Zertan datza hori?**

**I.M.** Gure nazioak bizi duen kinkalatz honetatik atera behar zuten, —eta duten— indarrek, euskal indar politikoek alegia, EAJk, EAK, EUEk edo HBk, alegia porrot egin dute. Hori hala izanik, ezta zera proposatzen, horiek denak ospa! Aitzitik, analisi honetan hauk «ere» (orain arte «ez» legez: «bakarrak» alegia) gogoan ukan behar ditugu. Erranak erran, Euskal Herrirako nolabaiteko behin-behineko Euskal Batzarre bat antolatuko garaia heldu bide da ■